



Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren argibideak, 2009-2010 ikasturterako Eskolatzeko Osagarriko Programak aplikatzeari buruzkoak, EAEko zentru publiko eta kontzertatu guztietan.

Sarrera

Ekainaren 23ko 118/1998 DEKRETUAK, eskola muinbakarraren eta integratzailearen esparruan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren eremuan emandako erantzuna antolatzeari buruzkoak, 23. eta 24. artikuluetan adierazten duenez Hezkuntza Administrazioak eskolatzeko-programa osagarriak ezarri ahal izango ditu aparteko egoerei erantzuteko. Programa horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aldi baterako hartu ahal izango dituzte, betiere Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuen proposamenen arabera, eta baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean egokitutako neurriak nahikoak izan ez badira.

Era berean, Dekretuak adierazten duenez programa horiek hezkuntza-premia bereziak, eskola-moldagabeziari lotutako egoera larrietatik sortutakoak, dituzten ikasleei laguntzeko sortu dira, hain zuzen ere, beren hezkuntza-prozesuen aurrean, ikaskideen eta irakasleen aurrean eta gizarte-ingurunearen aurrean jarrera positiboak garatzen laguntzeko, bide horretatik egokitzapen pertsonal eta sozialean aurrera egiteko eta ahal den neurrian DBHn aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

1998ko uztailaren 30eko AGINDUAK, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak aldarazi zuenak, aurreko Dekretua garatzen du eta honako hau ezartzen du bere 14. artikuluan: *"Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien aurrean erantzuteko bide arrunt eta aparteko guztiak agortu ondoren eta zailtasun sozial bereziak edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei edota ikasleen kolektiboari erantzutearren, berariazko tratamendu bat hartu ahal izango da aparteko izaeraz, hain zuzen ere hamalau urte baino gehiagoko eta hamasei urte baino gutxiagoko ikasleei zuzendutako eskolatzeko-programa osagarrien bidez"*.

Aparteko izaera duen bide bat dela azpimarratu beharra dago eta, beraz, oso aplikazio murrizta du. Hori dela eta, norabide batzuk ezarri behar dira neurri honen aplikazioak bere aparteko izaera gal ez dezan, ikastetxeak eskueran dituen neurri guztiak —arruntak nahiz apartekoak— hartu ondoren, hezkuntza-programa osagarri batean sartzearekin zerikusia duten erabakiak hartu aurretik, hain zuzen.

Programa horien aparteko izaerari eusteko eta dagozkien helburuak bete ahal izateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren izaera muinbakarra kontuan izanik, ezinbestekoa da ikastetxean martxan jarri ahal izango diren eta prebentziozko izaera duten neurri guztiak nabarmentzea, eta bereziki zaintzea ikasleren bat programa hauetakoren batean sartzeko erabakia hartzeko ezinbesteko prozesua.

1.- Eskolatzeko Osagarriko Programen xedea

1.1.- Eskolatzeko Osagarriko Programen xedea hau da: aurretik aipatutako ikasleei, berriazko unitateetan, beren garapen pertsonalerako, berriro sistema arruntera egokitzeko edo ondoren lanbide-hastapenerako ikasketei (horiek helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaituko dituzte) ekiteko baliagarriak diren ikasketak eskaintzea. Horretarako bide izango da beren premia pertsonal nahiz sozialetara egokitutako curriculumak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarriko gaitasunei uko egin gabe. Edozein modutara ere, curriculumeko alor instrumentalei emango zaie lehentasuna, betiere ikasle horien beharretara egokitutako metodologia erabiliaz.

1.2.-**Hezkuntza-izaera duen muturreko neurri bat da**, ikasleei egokitzapen pertsonala eta soziala lortzeko aukera eskaini nahi dena, zirkunstantzia pertsonalak edo sozialak direla-eta halako hezkuntza-neurriak behar dituztenean.

1.3.-**Aldi baterako neurria da**, inoiz ez behin betikoa, ikaslea ahal bezain laster sistema arruntean berriro sartzeko lortu nahi baita.

1.4.-**Aparteko neurri bat da**, hain zuzen ere esku-hartze multzo bat aplikatu ondoren esperotako emaitzak lortu ez direla egiaztatzean hartzen dena. Esku-hartze horietako batzuk hezkuntza-arlokoak eta prebentzio-izaerakoak dira eta beste batzuk curriculum-izaerakoak, arruntak nahiz apartekoak, behar bezala diseinatutakoak eta planifikatutakoak betiere.

2.- Eskolatzeko Osagarriko Programen curriculum-alderdiak.

2.1.- Eskolatzeko Osagarriko Programetan garatuko den curriculumak erreferentzia gisa hartu beharko ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari lotutako gaitasunak, eta dagozkien edukiak ikasle hauen premietara egokitu beharko dira.

2.2.-Hezkuntza-premia horiek bi talde nagusitan bana ditzakegu:

1.- Egokitzapen pertsonal eta sozialari lotutako premiak

2.- Curriculum-alderdien oinarriko ikasketzei lotutako premiak.

2.3.-Premien araberrako bi talde nagusi horien inguruan, Eskolatzeko Osagarriko Programen banakako nahiz taldeko curriculumari dagozkion helburuak eta antolamendua ezarri beharko dira.

2.4.-Eskulanek eta lanaren aurreko jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gaitasunak lortzera bideratuta egon behar dute. Hori dela eta, beren lehentasuneko helburua ez da lanbide-gaitasunen bat lortzea izango, hori Lanbide Hastapenerako Programei dagokien helburua baita.

2.5.- Eskolatzeko Osagarriko Programetan sartzeko proposatu diren ikasleen banakako programak prestatzeko, ikastetxeek aholkularitza eskatu ahal izango diete zonako laguntza-zerbitzuei.

3.- Eskolatzeko Osagarriko Programen hartzaileak

3.1.- Eskolatzeko Osagarriko Programak zailtasun sozial bereziak dituzten edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei soilik zuzenduta daude, zirkunstantzia horietan eta horiek aldatzen ez diren bitartean bideraezina denean hezkuntza-prozesu normalizatua.

3.2.- Eskolatzeko Osagarriko Programen hartzaile izango diren ikasleek hamasei urte baino gutxiago eta hamalau urte baino gehiago izan behar dituzte 2009/2010 ikasturtea hasierakoan, edozein kurtsotan eskolatuta izanik ere.

3.3.- Ezinbestekoa izango da ikaslea matrikulatutako ikastetxeak txostena egitea, Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia eta guzti. Txosten horretan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren araudi arruntean aniztasunari arreta eskaintzeko aurreikusten diren neurrien (horien artean ditugu hezkuntza-indargarriak, curriculum-egokitzapena eta berariaz esku hartzeko proiektuak) testuinguruan ordura arte hartutako neurrien ebaluazioa egingo da.

4-Iraunaldia

4.1.- Eskolatzeko Osagarriko Programak beti dira aldi baterakoak eta horiek diseinatzerakoan finkatuko da horien hasiera eta amaiera. Proposamenaren iraupena ez da 2009/2010 ikasturtea baino luzeagoa izango.

4.2.- Eskolatzeko Osagarriko Programaren aplikazioaren aldia luzatzeko edozein erabaki hartu aurretik behar bezala baloratu behar da egoera eta berariaz eta arrazoiak adieraziz eskatu behar zaio Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzari, baimendutako lehenengo indarraldia amaitu eta gero.

5.- Eskolatzeko Osagarriko Programa batean sartzeko ikasleak proposatzea.

5.1.- Eskolatzeko Osagarriko Programa batean sartu behar duten hautagaiak ikasle batzuegan sor daitezkeen portaera disruptiboak edo eskolarekiko gaitzusteak eragozteko prebentziozko eta jardun esplizitu eta positiboko neurri batzuk hartu direnean identifikatzen dira.

5.2.- Jarraitu beharreko prozedura honakoa izango da:

- a) Ikaslearen kurtsoko irakasle-taldea bilduko da, eta ikastetxeko orientatzailearen partaidetza eta laguntza-zerbitzuen aholkularitza izango dute. Hezkuntza Ikuskaritzaren iritzia eta laguntza ere jaso ahal izango da eta, egoki izanez gero, zonako gizarte zerbitzuen iritzia ere bai. Irakasleen taldeak txosten bat egingo du ikaslea Eskolatzeko Osagarriko Programa batean sartzeko proposamenaren komenigarritasunaren zergatia azaltzeko. Argibide hauetako 3-3 atalean ezarritakoarekin bat etorritik, adierazitako txostenean ikastetxean ordura arte zein neurri hartu diren eta horien emaitzak zein izan diren zehaztuko da. Bertan banakako curriculum-proposamena ere adieraziko da eta bertan zehaztuko dira zein premia dauden eta zein xede lortu nahi den.

- b) Programa ikaslea matrikulatutako ikastetxean bertan egingo bada, proposamena Eskolatze Osagarriko Programaren proiektuan txertatu beharko da, betiere 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikuluko 5. atalean xedatutakoarekin bat etorritz.
- c) Ikaslea matrikulatutako ikastetxean inolako Eskolatze Osagarriko Programarik onartu ez bada, irakasle-taldeak programa horiek garatzeko baimena duen beste ikastetxeren bat proposatu ahal izango du. Hezkuntza Administrazioak erabakiko du zein den zentrorik egokiena, baimena duten espezifikoen artean, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikulua 7. atalean xedatutakoarekin bat etorritz.
- d) Jardungo den moduaren berri emango zaie legezko erantzuleei, eta beren iritzia biltzeaz gain, informazio guztia eskainiko zaie ikasleari dagokionez proposatuko den neurriari buruz, hots, eskola-etorkizunaren aurreikuspenari, proposatzen den modalitateari eta eskolatze normalizatura itzultzeko aukerei eta horretarako baldintzei buruz.
- e) Txostenari ikaslearen eta horren legezko ordezkarien onespena erantsiko zaio.
- f) Irakasle-taldeak proposamena bidaliko dio ikastetxeko zuzendaritzari, eta horrek proposamena aztertuko du, eta egokitzen joz gero, proposamenaren izapideak egingo ditu.

6.-Eskabideetarako epea

6.1.- Ikastetxeko zuzendaritzak **2009ko ekainaren 12a** baino lehen bidaliko dio banakako proposamena Hezkuntzako lurralde-ordezkariari. Proposamenarekin batera honakoak bidaliko ditu:

- I. ERANSKINA: ikastetxearen txostena eta eskaera.
- II. ERANSKINA: legezko ordezkarien onespena.
- III. ERANSKINA: ikaslearen onespena.
- IV. ERANSKINA: banakako curriculum proposamena.

6.2.- Ikastetxeak ikasle bat baino gehiago proposatuz gero, lehentasun-ordena ere jarriko du, proposaturiko ikasleen premien arabera.

6.3.- Salbuespen gisa, aurrez ikusi ezin izan delako edota beharra gero gertatu delako, arrazoitutako proposamena egin ahal izango da, 2009/2010 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan, Eskolatze Osagarriko Programan sartzeko, jarraibideotan ezarritakoaren arabera.

7. Onespena.

1.- 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, tokian tokiko Berritzeguneak eta Hezkuntza Ikuskaritzak egindako nahitaezko txostenak ikusita, eta, hala bada, aparteko aldian emandako berariazko txostenak —hau da, ikasturtearen lehen hiruhilekoan, aurrez ikusi ezin daitezkeen edo gero gertatu diren

egoerak direla eta—, Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak honakoak egingo ditu:

- a.) Ikaslea Eskolatze Osagarriko Programa batean sartzeko edo ez sartzeko erabakia hartuko du.
- b) Lurralde bakoitzeko Osabidezko Hezkuntzako Teknikariek batera, ikaslea zein ikastetxetara joango den erabakiko du. Ikastetxe horrek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena duten horien artekoa izan beharko du.
- c) Ikastetxeei idatziz emango die hartutako erabakiaren berri, nahiz eta erabaki hori ez den gauzatuko, hau da, nahiz eta ikaslea ez den programa hau irakasten duen ikastetxera atxikiko, Lurralde Burutzak ondoko hauek ez dituen bitartean:

V ERANSKINA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldearen eta Eskolatze Osagarriko Programaren arduradunen arteko koordinazio eta jarraipenerako plana (jarraipenean parte hartuko duen hezkuntza-taldeko kideen izena eta funtzioa zehaztuko dira).

c.1) Ohiko aldiari dagokionez, eskabidea aurkezten den ikasturteko irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da plan hori.

c.2) Aparteko aldiari dagokionez, hamar eguneko epea izango da, eskabidea onartu dela jakinarazten denetik aurrera.

2.- Dagokion Hezkuntza-ordezkaritzaren proposamena onartzen ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak Pedagogi Berrikuntzako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio desadostasun hori, arrazoiak ere zehaztuz. Jatorrizko ikastetxeak, ikaslearen guraso/tutore/legezko ordezkariak, ikasleak berak uko egiten badiote, espedientea artxibatu, eta ikaslea programatik at geratze erabakiko da. Hala ere, uko egitearen arrazoa baldin bada esleitutako ikastetxearekin ados ez egotea, beste bat esleituko da, bidezko bada.

8.- Ikaslearen egoera akademikoa.

Ikaslea jatorriz dagokion Bigarren Hezkuntzako institutuan edo ikastetxean matrikulatuta agertuko da eta espedientea bertan izango du irekita, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 17. artikuluan xedatutako baldintzetan.

Beka, eskola-seguru eta gainerakoen izapideak eta ikasle horren eskolaratzeari buruzko agiri ofizial guztiak jatorrizko ikastetxeak egingo ditu.

9.- Ebaluazioa eta jarraipena.

9.1.- 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak, 18.1 artikuluan, xedatutakoarekin bat etorritik, gutxienez hiru hilabetetik behin programa hauetako ikasleen banakako jarraipena egingo da. Horretarako jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde horren partaideak honakoak izango dira: ikaslea matrikulatutako ikastetxeko ikasketaburua, programaren arduraduna eta tokian tokiko Berritzeguneko aholkulari bat. Batzorde

horretan parte hartu ahal izango dute, halaber, ikastetxeko orientatzaileak eta ikaslearen tutoreak.

9.2.- Gurasoei informazioa eskaintzerakoan, informazioa batera landuko dute Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta Eskolatze Osagarriko Programaren arduradunek.

9.3.- Ikasle baten ikasketa-mailak eta baldintzek hala aholkatzen dutenean, batzorde horrek proposamena egin ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzari ikaslea berriro sartzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dagokion kurtsuan. Hori familiari eta Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzari jakinaraziko zaie. Horrela, ikaslea programa horretan sartzeko Burutzan hasitako espedientea bukatutzat emango da.

9.4.- Jatorrizko ikastetxeak du bere ikasleen absentismo-protokoloari jarraipena emateko ardura; horretarako, Eskolatze Osagarriko Programa gauzatzen duen ikastetxeak informazio zehatza eta berehalakoa emango du horri buruz.

9.5.- Posible den neurrian, ikaslearen jatorrizko institutu edo ikastetxeko zuzendaritzak ahalegina egingo du ikasleak ikastetxearekiko eta bere ikaskideekiko harremanei eusteko ekintza guztiak ahalbidetzeko (eskolaz kanpoko ekintzak, bidaiak, jaiak, ikasleentzako informazioa...).

9.6.- Eskolatze Osagarriko Programak egiten dituzten ikastetxeetan, programa horien jarraipena eta balorazioa 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 18. artikuluko 2. atalak xedatutakoari jarraiki egingo da. Artikulu horrek, hain zuzen, programaren ebaluazioari buruzko txostena egin beharra dakar, eta txosten hori horretarako propio egindako bileran aurkeztuko da, programa garatzen den ikasturteko maiatzean egingo dena.

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 25ean

M^a Luisa Garcia Gurrutxaga

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

I. ERANSKINA

IKASTETXEAREN TXOSTENA ETA ESKAERA ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMA BATEAN SARTZEKO

1.-Ikaslearen datuak:

Izen eta abizenak: _____

Adina: _____ Maila: _____ Taldea: _____ Jaiotze-data: _____

Helbidea _____ Ikastetxea: _____

Udalerrria: _____ Proposamenaren data: _____

2.-Proposamena justifikatzen duten zirkunstantziak:

2.1.- Zirkunstantzia pertsonalak eta gizarte- nahiz familia-inguruneari dagozkionak¹

- Hezkuntzako / eskolako historiala
- Problematika pertsonala, eta eskola- nahiz gizarte-inguruneari lotutakoa
- Familia- eta gizarte-ingurunearen ezaugarriak, itxaropenak, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko aukerak eta abar.
- Praktikan jarri diren neurriak eta neurri horien balorazioa

2.2.- Eskola-eremuko hezkuntzaren garapenari buruzkoak

- Curriculum-gaitasunaren mailari buruz
- Motibazioari eta jarrereri dagozkien mailei buruz
- Hezkuntzaren eremuko esku-hartzearen ezaugarriari buruz

2.3.- Praktikan jarri diren neurri arruntak eta apartekoak eta neurri horien emaitzen balorazioa

¹ Ikaslearen gizarte- eta familia- inguruneako datuak jasotzerakoan, kontu eta errespetu handiz ibili beharra dago pertsonen intimitatearekin, eta, beraz, ahalegina egin behar da egindako proposamenari argi eta garbi, nabarmen, eragiten dioten alderdietara mugatzen.

3.- Eskolatzeko Osagarriko Programan noiz arte jarraitzea aurreikusi den:

4.- Ikaslea zein ikastetxe baimendutara bidaltzea proposatzen den:

Udalerrria:

5.- Ordena-zenbakia, lehentasunaren arabera:²

6.- Eskaera:

Horregatik guztiarengatik _____ ko Hezkuntza ordezkariari, goian adierazitako baldintzetan _____ ikaslea Eskolatzeko Osagarriko Programa batean sartzeko eskatzen zaio.

_____(e)n, _____(e)ko _____ren _____(e)(a)n.

Tutorea

Zuzendaria

² Eskolatzeko-programa osagarrietara ikasle bat baino gehiago sartzeko eskatuz gero, jarri bakoitzari zenbaki bana, lehentasunaren arabera.

II ERANSKINA LEGEZKO ARDUNADUNEN IRITZIA

_____ jaunak
/andreak, DBHko _____ kurtsoan dagoen
_____ ikaslearen (aita, ama, legezko
arduraduna) naizenez, honen bidez adierazten dut gaur den egunean
_____ jaun/andreak, _____
(ikastetxeko tutoreak, zuzendariak), jakinarazi didala irakasle-taldeak egindako
proposamena _____(seme, alaba, babespekoa...) ondoko Eskolatzeko
Osagarriko Programan sartzeko: (adierazi programa horren oinarrizko ildoak;
prestakuntzaren profilak, programa zein ikastetxetan gauzatuko den).

Aipatutako proposamenari buruz honako hau adierazi nahi dugu:

Eta adierazten dut ados nagoela nire semea edo alaba (babespekoa eta abar) Eskolatzeko
Osagarriko Programa batean sartzearekin, programa horren ezaugarriak eta baldintzak
goian aipatutakoak izanik eta honela garatuko delarik:

Hasiera-data:

Amaiera-data:

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n.

Legezko arduradunaren sinadura

Tutorearen sinadura

(Idatzi honen kopia bat entregatuko zaio bi sinadurekin ikaslearen legezko arduradunari)

III. ERANSKINA

IKASLEAREN IRITZIA

Nik, _____k, _____ ikastetxean
ikasle naizen honek, honen bidez adierazten dut gaur den egunean
_____ jaun/andreak, _____
(ikastetxeko tutoreak, zuzendariak), jakinarazi didala irakasle-taldeak egindako
proposamena neu ondoko Eskolatzeko Osagarriko Programan sartzeko: (adierazi programa
horren oinarritzko ildoak; prestakuntzaren profilak, programa zein ikastetxetan
gauzatuko den).

Proposamen horri buruz honako hau adierazi nahi dut:

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

Ikaslearen sinadura

Tutorearen sinadura

IV. ERANSKINA
BANAKAKO CURRICULUM-PROPOSAMENA

DBHko ikastetxea:

Herria:

Ikaslearen datuak:

Izena:

Abizenak:

Jaiotza-data:

Matrikulatuta dagoen ikasturtea:

Gainditutako azken kurtsoa:

Curriculum proposamena:

(Berariazko helburuak, arloak, kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak...)

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

Tutorea:

Orientatzailea:

V. ERANSKINA
KOORDINAZIO ETA JARRAIPENERAKO PLANA

DBHko ikastetxea:

udalerria:

Ikaslearen datuak:

Izena:

Abizenak:

Jaiotza-data:

Programa irakasten duen ikastetxea:

udalerria:

Erreferentzia-pertsona ikastetxean	Erreferentzia-pertsona Eskolatzeko Osagarriko Programan

Aurreikusitako bilerak		
Data	Tokia	Bileraren xedea

Data:

DBHko ikastetxeko zuzendaria
(jatorrizko ikastetxean):

Programaren arduraduna
(helbideratutako ikastetxean):